XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* Soin hezkuntzako Euskal Erakundean (SHEE/IVEF) sartzeko plazaratu diren probetarako izen emateari dagokion prezio publikoa 48 eurotakoa izango da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko maiatzaren 6a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-2757

91/2002 DEKRETUA, apirilaren 2koa, enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituena.

Europako erkidegoak ingurumena babesteko estatuko laguntzei buruz emandako xedapenak zorrozki betez, eta otsailaren 4ko 15/1992 dekretuarekin bat etorriz (enpresei ingurumen alorreko diru-laguntzak emateko oinarrizko arauak finkatzen dituena), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, euskal industria sektorean ingurumenaren aldeko inbertsioak sustatzearren, dirulaguntza programak txertatu ditu bere ingurumen-politikan joan den hamarkadan, politika horren oinarrizko helburua lortzearren: garapen jasangarria. Laguntza ekonomiko horiek emateko garaian bi baldintza nagusi hartu dira oinarritzat: batetik, enpresak Europako erkidegoko arauetara egokitzera bultzatzea, behin-behineko konponbide alternatibo gisa eta ingurumeneko kosteak gainerako ekoizpen-kostuekin batera hartzerik ez dagoenean soilik; bestetik, sustapenaren bidez, enpresak indarrean dauden arauak gainditzera edo inbertsio osagarriak egitera bultzatu nahi dira, beren instalazioek gutxiago kutsa dezaten.

DISPONGO:

*Artículo único.–* El precio público del derecho de inscripción en las pruebas convocadas para el ingreso en el Instituto Vasco de Educación Física (SHEE/IVEF) será de 48 euros.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 2002.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### N°-2757

DECRETO 91/2002, de 23 de abril, por el que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente.

En aplicación estricta de lo dispuesto en las disposiciones comunitarias sobre ayudas estatales a favor del medio ambiente, y de conformidad con el Decreto 15/1992,de 4 de febrero, por el que establecen las normas básicas para la concesión de subvenciones a empresas en materia de medio ambiente, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco ha incorporado a la política ambiental de la última década la ejecución de programas subvencionales encaminados a incentivar inversiones medio ambientales en el sector industrial vasco, en orden a la consecución del objetivo básico de aquella política cual es el del logro de un desarrollo sostenible. En este marco el otorgamiento de ayudas económicas se ha centrado en dos supuestos específicos: el primero de ellos se refería a incitar a las empresas a adaptarse a las normas comunitarias, como solución alternativa temporal y sólo cuando concurrían circunstancias específicas que hacían imposible la integración total de los costes ambientales en la misma forma en que lo eran los demás costes de producción; en el segundo caso se trataba de impulsar a las empresas, a través de un efecto incentivador, a superar las normas o a realizar inversiones adicionales para que sus instalaciones fueran menos contaminantes.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak bultzatutako inguramen-estrategia berria, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Esparru Programa, aurki onartuko da. Programa honek bere baitan biltzen ditu hurrengo urteetan zehar jasangarritasunera bidean hartu beharko diren konpromisoak eta, euskal industriari dagokionez, oinarrizkoa deritzo administrazioak eskueran dauden teknologiarik onenak ekoizpen-sistemetan sartzeko ahalegina egiteari, era horretan lehiakortasuna hobetuz eta hainbat ingurumen-eragin motelduz. Nolanahi ere, Europako erkidegoak ingurumena babesteko estatuko laguntzei buruzko jarraibideak onartu ditu (2001/C 37/03) eta, horren ondorioz, indarrean dauden laguntza-erregimenak jarraibide horietara egokitu behar dira. Hortaz, Europako erakundeek ingurumena babesteko diru-laguntzei buruz egin dituzten azterketen emaitza eta ondorioak biltzen dituen xedapena landu beharra dago. Honela, eta Europako Batzordeak ingurumen alorreko Bosgarren Jarduketa-programaren ebaluazio orokorrean adierazitakoari jarraiki, hots, kutsatzen duenak ordaindu beharra duela dioen printzipioari jarraiki, aurrerantzean ez du zentzurik izango arau berrietara edota indarrean dauden arauetara egokitzeko helburua duten inbertsioei laguntza emateak, enpresa txiki eta ertainen (ETE) kasua salbu. Dena den, laguntza ekonomikoak erabilgarri izaten jarraitu dezakete, Europako erkidegoko arauetan eskatutako babes-maila gainditzeko pizgarri gisa balio badute. Azken baldintza horrekin bat datoz ondoko kasu hauek, hain zuzen ere: Europako erkidegoko araurik ezean egokitu diren gobernu-programak burutzea edo estatu edo autonomia-erkidegoko arauak ezartzea, edo Europako erkidegokoak baino zorrotzagoak diren arauak ezartzea, edota, Europako erkidegoko indarreko arau zorrotzenak gainditu edo, halakorik ezean, ingurumena babesteko enpresek egindako inbertsioak.

Azken batean, dekretu honen bidez, indarreko EBeko arauak gainditzen dituzten ingurumeneko babesmaila lortzera bideratutako inbertsioak egitera bultzatu nahi dira enpresak, isurketa kutsatzaileen neurketaren emaitza administrazioak berak dituen kontrol-sistema orokorretan txertatzea ahalbidetzen duten inbertsioei lehentasuna emanez. Hala eta guztiz ere, Europako erkidegoaren jarraibide berrietan aurreikusitako salbuespena onartuta, ETEei inbertsioak egiteko aldi baterako laguntzak ematea aurreikusten da, Europako erkidegoko arau berriak bete ditzaten. Edozein kasutan, laguntza horiek arau berriak indarrean sartu eta hiru urteko epean baino ezin izango dira eman.

La nueva estrategia ambiental promovida por el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, que encontrará su reflejo en la próxima aprobación del Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, viene a incorporar los compromisos a asumir durante los años venideros a fin de avanzar hacia la sostenibilidad y, en lo que se refiere a la industria vasca, sigue considerando como aspecto básico el que la Administración favorezca la introducción de las mejores tecnologías disponibles en los sistemas de producción, mejorando la competitividad y reduciendo los impactos sobre los diferentes medios. Sin embargo, tal voluntad debe de acomodarse, en cualquier caso, al contenido de las nuevas Directrices Comunitarias sobre ayudas estatales a favor del medio ambiente (2001/C 37/03), cuya aprobación por las instituciones comunitarias conlleva la consiguiente obligación de adaptar los regímenes de ayuda en vigor, haciendo precisa la elaboración de una nueva disposición que haga suyas las conclusiones y los resultados de las evaluaciones que los órganos comunitarios han llevado a cabo sobre las ayudas económicas a favor del medio ambiente. En este sentido, y considerando, tal y como afirma la Comisión Europea en su evaluación global del Quinto Programa de actuación en materia de medio ambiente, que se siguen manteniendo como aspectos críticos la aplicación efectiva del principio de que quien contamina, paga y la plena internalización de los costes ambientales para que éstos recaigan sobre quienes contaminan, no resultan ya justificadas las ayudas a las inversiones cuyo objeto sea simplemente la adecuación a normas comunitarias nuevas o vigentes, con la salvedad de las PYME, si bien debe subrayarse que las ayudas económicas pueden seguir resultando útiles si sirven de incentivo para superar el nivel de protección exigido por la normativa comunitaria. Este último es el supuesto de adopción de normas estatales o autonómicas o de ejecución de programas gubernamentales adoptados en ausencia de normas comunitarias o que resulten más estrictos que las normas comunitarias o el supuesto, también, de la empresa que realiza inversiones destinadas a proteger el medio ambiente que superen las normas comunitarias vigentes más estrictas o en ausencia de normas comunitarias.

En definitiva, el presente Decreto pretender incentivar, básicamente, las inversiones encaminadas a alcanzar un nivel de protección del medio ambiente que permita a la empresa beneficiaria superar las normas comunitarias vigentes, otorgando una especial prioridad a aquellas inversiones que permitan la incorporación de los resultados de medición de las emisiones contaminantes a los sistemas generales de control de los que la propia Administración dispone. No obstante, aceptando la salvedad prevista en las nuevas directrices comunitarias, se prevé, asimismo, el otorgamiento de ayudas transitorias a la inversión a favor de las PYME para que cumplan las nuevas normas comunitarias, si bien estas ayudas deben de concederse en un periodo de tres años a partir de la adopción de tales normas.

Diruz lagundu daitezkeen kostuei dagokienez, ingurumeneko helburuak lortzeko beharrezkoak diren kostu finantzario osagarrietan ezarriko da muga, ingurumena babestearekin zerikusirik ez duten gainerako inbertsio-gastu orokorrak kanpo utzita. Era berean, diruz lagundu daitezkeen kostuak ondoko alderdien zenbateko garbia oinarritzat hartuta kalkulatuko dira: ekoizpen-gaitasuna handituko balitz lortuko liratekeen onurak, inbertsioaren lehenbiziko bost urteetan aurreztutako kostuak, eta bost urteko denbora-tarte horretan egindako gainerako inbertsio osagarriak.

Azkenik, eta dekretu honen helburua enpresei ingurumen alorrean diru-laguntzak emateko baldintza orokorrak finkatzea dela kontuan izanik, urteroko deialdien aginduek zehaztuko dituzte ondoko puntuak: laguntza-eskabideak aurkezteko epea, ekitaldi horretako aurrekontuan zenbat dagoen eskuragarri, eta, hala badagokio, diru-laguntzak emateko lehentasunezko irizpideak, dekretu honetako 7. artikuluan adierazitakoei gehituko zaizkionak.

Aurreko guztiari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen Printzipioei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 legegintzako dekretuarekin bat etorriz, Europako Batzordearen 2002ko martxoaren 19ko Erabakia ikusirik, eta Gobernu-kontseiluaren 2002ko apirilaren 23ko bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Dekretu honen xedea hauxe da: Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzea. Diru-laguntza horiek lehiaketa bidezko prozedurari jarraiki emango dira, ingurumena babesteko estatuko laguntzei buruzko Europako erkidegoak emandako jarraibideetan zehaztutako baldintza eta mugekin bat etorriz (2001/C 37/03).

*2. artikulua.–* Onuradunak.

1.– Dekretu honetan arautukako diru-laguntzen onuradun edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daiteke, ondokoak izan ezik: lurralde-mailako toki-erakundeak, sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak izan ezik.

2.– Dekretu honetan arautukako diru-laguntzarik ezingo dute jaso ingurumen-legedia hautsiz hutsegite larria edota oso larria egiteagatik zigortuak izan diren enpresek, beti ere kasuari dagokion neurri zuzentzaile-

Respecto a los costes subvencionables, los mismos se limitarán estrictamente al coste financiero adicional necesario para alcanzar los objetivos medio ambientales, quedando excluidos los gastos generales de inversión que no se hallan relacionados con la protección del medio ambiente. Asimismo, los costes subvencionables se calcularán netos de las ventajas obtenidas de un eventual incremento de la capacidad productiva, de los ahorros de costes generados durante los cinco primeros años de vida de la inversión y de las producciones accesorias adicionales durante el mismo periodo de cinco años.

Por último, y dado que el presente Decreto pretende el establecimiento de un marco general referido al otorgamiento de subvenciones a empresas en materia de medio ambiente, serán las Órdenes de convocatoria anuales las que establezcan para cada ejercicio presupuestario la fijación del plazo de presentación de solicitudes para acogerse a las ayudas objeto de regulación, contemplando, asimismo, las concretas disponibilidades presupuestarias y, en su caso, criterios de adjudicación prioritarios que se sumarán a los incluidos en el artículo 7 de este Decreto.

En virtud de todo lo expuesto, y de conformidad con los dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, vista la Decisión de la Comisión Europea de 19 de marzo de 2002, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 23 de abril de 2002

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto del presente Decreto es la regulación de la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, destinadas a la protección del medio ambiente. Dichas subvenciones se concederán por el procedimiento de concurso, y se ajustarán a las condiciones y límites contenidos en las Directrices Comunitarias sobre ayudas estatales en favor del medio ambiente (2001/C 37/03).

*Artículo 2.–* Personas beneficiarias.

1.– Podrá ser beneficiaria de las subvenciones reguladas por este Decreto cualquier persona física o jurídica, excepto las Entidades Locales Territoriales, Sociedades Públicas y Entes Públicos de derecho privado.

2.– No podrán acceder a las subvenciones contempladas en el presente Decreto aquellas empresas que hubieran sido sancionadas por faltas graves y muy graves derivadas del incumplimiento de la legislación ambien-

rik hartu ez badituzte eta ipini zaien zigorra garbitu ez badute. Era berean, laguntza hauen izaera berdineko beste dirulaguntza-programaren baten esparruan hasitako itzultze-prozeduraren edo zigor-prozeduraren erabakiaren zain daudenek ere ezingo dute dekretu honetan araututako diru-laguntzarik jaso.

*3. artikulua.*– Baldintza orokorrak.

1.– Dekretu honetan araututako diru-laguntzak ondoko helbururako erabiliko dira, artikulu honetako 4. paragrafoan zehaztutako kasuan izan ezik: enpresa onuradunak indarreko Europako erkidegoko arauetan ingurumena babesteari dagokionez finkatutako maila gainditzera bideratutako inbertsioak sustatzera.

2.– Era berean diruz lagundu ahal izango dira Europako erkidegoko arauak baino zorrotzago diren estatuko nahiz autonomia-erkidegoko arauetara edo gobernu-programetara egokitzera bideratutako inbertsioak, bai eta Europako erkidegoan nahitaezko araurik ez dagoen alorretan egindako gainerako inbertsioak.

3.– Europako erkidegoko arauak gainditzeko inbertsioei dagokienez, oraindik indarrean sartu gabe dagoeneko onartuta dauden arauetara egokitze hutsa dakarten inbertsioak ez dira diruz lagunduko.

4.– Europako erkidegoko nahitaezko arau berriak betetzera bideratutako inbertsioetarako diru-laguntzak inbertsio horiek ETEek egiten dituztenean emango dira soilik. 1996ko apirilaren 3an Europako Batzordeak emandako 96/280/CE Gomendioetan finkatutako baldintzak betetzen ez dituzten enpresak hartzen dira halakotzat, arau horiek onartu eta hiru urteko denboratartean zehar.

*4. artikulua.*– Aintzat hartutako inbertsioak.

Aintzat hartzen diren inbertsioak hauek izango dira: lursailetan egiten direnak, ingurumenari dagozkion helburuak betetzeko behar-beharrezkoak badira; kutsadura eta ondorio kaltegarriak murriztu edo ezabatzeko, edo ingurumena babestearren ekoizpen-metodoak egokitzeko, eraikin, instalazio eta ekipo-ondasunetan egindakoak. Era berean, aintzakotzat hartutako inbertsioen artean, beste hauek ditugu halaber: ingurumen alorreko aholkularitza-zerbitzuetara bideratuta ETEek egindakoak, inbertsio horiek ingurumena babesteko hobekuntzak badakarte, 2001eko urtarrilaren 12ko Europako Batzordearen CE 70/2001 Arautegian (Europako Erkidegoko Ituneko 87 eta 88. artikulua estatuak enpresa txiki eta ertainei ematen dien laguntzetan ezartzeari buruzkoa).

*5. artikulua.*– Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak, ingurumenari lotutako helburuak lortzeko beharrezkoa den finantza-kostu osagarrira mugatuko dira zorrozki, eta kanpo utziko dira ingurumenaren babesarekin zerikusirik ez duten inbertsioei dagozkien gastu orokorrak.

tal, en tanto en cuanto no ejecutaren las medidas correctoras pertinentes y se hubiera satisfecho la sanción, no debiendo tampoco hallarse incursas en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

*Artículo 3.*– Condiciones generales.

1.– Las subvenciones reguladas en este Decreto se destinarán, con la salvedad prevista en el apartado cuarto de este artículo, a incentivar las inversiones encaminadas a alcanzar un nivel de protección del medio ambiente que permita a la empresa beneficiaria superar las normas comunitarias vigentes.

2.– Resultarán igualmente subvencionables las inversiones destinadas a la adaptación a normas estatales o autonómicas, o a programas gubernamentales que resulten más estrictos que las normas comunitarias y aquellas otras inversiones realizadas en ausencia de normas comunitarias obligatorias.

3.– No podrán concederse ayudas a la inversión para superar normas comunitarias cuando dicha superación consista en una simple adecuación a normas comunitarias ya aprobadas que no estén aún vigentes.

4.– Únicamente resultarán subvencionables las inversiones encaminadas al cumplimiento de nuevas normas comunitarias obligatorias, cuando las mismas se aborden por las PYME, entendiendo por tales las que se ajusten a los requisitos contenidos en la Recomendación 96/280/CE de la Comisión de 3 de abril de 1996, y ello, durante un periodo de tres años contado a partir de la adopción de las citadas normas.

*Artículo 4.*– Inversiones consideradas.

Las inversiones consideradas serán las realizadas en terrenos cuando sean estrictamente necesarias para cumplir los objetivos medioambientales y las referidas a edificios, instalaciones y bienes de equipo cuyo fin sea reducir o eliminar la contaminación y otros efectos nocivos, o adaptar los métodos de producción para proteger el medio ambiente. Asimismo se incluyen entre las inversiones consideradas las abordadas por las PYME y que se destinen a servicios de asesoramiento en materia de medio ambiente que les permitan realizar mejoras de protección ambiental, de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento CE n.º 70/2001 de la Comisión de 12 de enero de 2001, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del tratado CE a las ayudas estatales a las pequeñas y medianas empresas.

*Artículo 5.*– Costes subvencionables.

1.– Los costes subvencionables se limitarán estrictamente al coste financiero adicional necesario para alcanzar los objetivos medioambientales, quedando excluidos los gastos generales de inversión que no estén relacionados con la protección del medio ambiente.

2.– Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen gastuak ondoko alderdiei dagozkien zenbateko garbiak oinarritzat hartuz kalkulatuko dira: ekoizpen-gaitasuna handituz gero lortuko liratekeen hobariak, inbertsioaren lehenbiziko bost urteetan zehar aurreztutako kostuak, eta denbora-tarte berean egindako gainerako ekoizpen osagarriak.

*6. artikulua.*– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– 3. artikuluko 1 eta 2 paragrafoetan aurreikusitako kasuetan, ematen den diru-laguntza ez da diruz lagundu daitezkeen kostuen %30 garbia baino handiagoa izango.

2.– 3. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kasuan, Europako erkidegoko arau berriak betetzeko ETEek egindako inbertsioei dagozkiena, diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen kostuen %15 garbia izango da gehienez ere.

3.– ETEei ingurumenari buruzko aholkularitza-zerbitzuari dagozkion diru-laguntzak zerbitzu horien kostuaren %50era bitartekoak izango dira.

*7. artikulua.*– Diru-laguntzak emateko lehentasunezko irizpideak.

1.– Dekretu honen xedea osatzen duten diru-laguntzak emateko garaian aintzakotzat hartuko den lehentasunezko irizpidea hauxe izango da: instalazio edo ekipo-ondasunetan egindako inbertsioak, hauen emaitzak administrazioaren kontrol-sistemetan txertatuz gero.

2.– Era berean, diru-laguntzak emateko ondorengo irizpide hauek hartuko dira aintzakotzat:

a) Industria-jarduerak ingurumenean duen eragina.

b) Aurreikusitako inbertsioak ingurumenean eragingo duen hobekuntza.

c) Hiriguneetan edo gune hauetatik gertu dauden instalazioetan inbertsioak egitea.

d) Industria-jarduera burutzen den eragin-eremuan gauzatzekoak diren ingurumen-planak egotea.

e) Ondoko bi arauetan zehaztutako eremu sentikorretan eragina duten inbertsioak egitea: 1979ko apirilaren 2ko Europako Kontseiluko 79/409/CEE zuzentaraua, hegazti basatien kontserbazioari buruzkoa, eta 1992ko maiatzaren 21eko Europako Kontseiluko 92/43/CEE zuzentaraua, natur habitaten eta landaredi eta fauna basatien kontserbazioari buruzkoa.

*8. artikulua.*– Eskaerak eta dokumentazioa.

Eskaerak ondoko lekuetan aurkeztu daitezke: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Sailburuordetzaren egoitzan (Gasteizko Donostia kalea, 1ean), sail horren lurralde-bulegoetan, edo Administra-

2.– En cualquier caso, los costes subvencionables se calcularán netos de las ventajas obtenidas de un eventual incremento de la capacidad productiva, de los ahorros de costes generados durante los cinco primeros años de vida de la inversión y de las producciones accesorias adicionales durante el mismo periodo de tiempo.

*Artículo 6.*– Cuantía de la subvención.

1.– En los supuestos contemplados en los apartados uno y dos del articulo 3, la subvención que se conceda no podrá superar el 30% bruto de los costes subvencionables.

2.– En el supuesto contemplado en el apartado 4 del artículo 3, inversiones abordadas por PYME para que cumplan las nuevas normas comunitarias, el importe de la subvención alcanzará un nivel máximo del 15% bruto de los costes subvencionables.

3.– Las subvenciones referidas a los servicios de asesoramiento a las PYME en materia de medio ambiente podrán alcanzar un nivel máximo del 50% del coste de tales servicios.

*Artículo 7.*– Criterios prioritarios de adjudicación.

1.– En el otorgamiento de las subvenciones objeto del presente Decreto, se tendrá en cuenta, como criterio prioritario de adjudicación, la realización de inversiones en instalaciones o bienes de equipo que incorporen sus resultados a los sistemas de control de la Administración.

2.– Asimismo, se tendrán en cuenta, entre otros, los siguientes criterios de adjudicación:

a) Incidencia de la actividad industrial sobre el medio ambiente.

b) La mejora medioambiental que suponga la inversión prevista.

c) La realización de inversiones en instalaciones ubicadas en zonas urbanas o próximas a ellas.

d) La existencia de planes ambientales de aplicación en el área de influencia del desarrollo de la actividad industrial.

e) La realización de inversiones que afecten a las zonas sensibles a las que se refieren la Directiva 79/409/CEE del Consejo, de 2 de abril de 1979, relativa a la conservación de las aves silvestres y la Directiva 92/43/CEE, del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la flora y fauna silvestres.

*Artículo 8.*– Solicitudes y documentación.

Las solicitudes habrán de presentarse ante la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, sita en Vitoria-Gasteiz, calle Donostia-San Sebastián, n.º 1, en

zio Publikoetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan finkatutako gainerako tokietan. Eskaerarekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) Nortasun-agiria edo Identifikazio Fiskaleko Kodea.

b) Enpresaren eraketa-eskriturak.

c) Diru-laguntza eskatzen duenaren izenean emandako ordezkapen-ahalordea. Ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan behar bezala izen emanda edo, hala badagokio, behar bezala egiaztatua egon beharko du.

d) Enpresaren jarduera nagusiaren azalpen laburra, eta Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalak (CNAE) jarduera horri emandako zehaztapena.

e) Burutu beharreko egitasmoaren deskribapena, lortu nahi den ingurumen-hobekuntzaren deskribapen kuantitatiboa, hala badagokio, hobekuntza horren gaineko eragina duten arau eta balioak ere zehaztuz.

f) Inbertsioari buruzko azterketa ekonomiko eta finantzarioa. Aurrekontuaren zehaztapena. Ingurumena babesteari dagozkion helburuak lortzeko egin beharreko inbertsio osagarrien kostuen zehaztapen zehatza. Ekoizpen-gaitasuna handituko balitz, ondorengo alderdiak zehaztu beharko lirateke: lortuko liratekeen onurak, inbertsioaren lehenbiziko bost urteetan sortutako kosteetan aurreikusten den aurrezkia eta denbora-tarte berean egindako bestelako ekoizpen osagarriak.

g) Beste zenbait erakundek instalazio berari emandako diru-laguntzen zenbateko zehatzaren adierazpena.

h) Inbertsioa burutzeko epea, diruz laguntzekoa den egitasmoaren hasiera eta amaiera datak emanez.

i) Zerga-betebeharrak bete dituela egiaztatzen duen Ogasunaren ziurtagiria.

j) Gizarte Segurantzari dagozkion kuotak ordaindu dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

k) Mota bereko beste diru-laguntzaren baten edo bestelako laguntzen esparruan hasitako itzultze-prozedurarik edo zigor-prozedurarik erabaki zain ez egotea adierazten duen zinpeko aitorpena. Ingurumen-legedia hautsiz hutsegite larria edota oso larria egiteagatik zigortuak izan diren enpresen kasuan, dagozkien neurri zuzentzaileak hartu izanaren eta jasotako zigorra bete izanaren zinpeko aitorpena.

l) Jardueraren udal lizentzia.

*9. artikulua.–* Aurkeztutako eskaeran akatsak zuzentzea.

Diru-laguntza eskuratzeko eskaerak aurreko artikuluan eta, hala badagokio, ezartzekoa den berariazko legerian finkatutako baldintzak beteko ez balitu, doakionari hamar eguneko epean akatsa zuzendu edota agi-

las Oficinas Territoriales del citado Departamento ó en cualquiera de los lugares establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Las solicitudes se acompañarán de la siguiente documentación:

a) DNI ó Código de Identificación Fiscal.

b) Escrituras de constitución de la empresa.

c) Poder de representación otorgado a favor del solicitante de la subvención debidamente inscrito en el Registro Mercantil o, en su caso, debidamente acreditado.

d) Breve descripción de la actividad principal de la empresa y determinación del CNAE referido a dicha actividad.

e) Descripción del proyecto a abordar, descripción cuantitativa de la mejora ambiental que se pretende, con indicación, en su caso, de las normas y valores que le afecten.

f) Estudio económico y financiero de la inversión. Determinación del presupuesto. Determinación concreta de los costes de las inversiones adicionales para alcanzar los objetivos de protección ambiental. Determinación de las ventajas obtenidas de un eventual incremento de la capacidad productiva, previsión de ahorro de costes generados durante los cinco primero años de vida de la inversión y de las producciones accesorias adicionales durante el mismo periodo de cinco años.

g) Declaración expresa de las cuantías de las subvenciones que, en su caso, hayan sido solicitadas u otorgadas por otros Entes, para la misma instalación.

h) Plazo de ejecución de la inversión, incluyendo fechas de inicio y finalización de la ejecución del proyecto a subvencionar.

i) Certificado de Hacienda acreditativo del cumplimiento de las obligaciones tributarias.

j) Certificado acreditativo del pago de las cuotas de la seguridad social.

k) Declaración jurada de no hallarse incursa en procedimiento de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza. En el supuesto de haber sido sancionada por faltas graves y muy graves derivadas del incumplimiento de las legislación medioambiental, declaración jurada de haber ejecutado las medidas correctoras pertinentes y satisfecho la sanción impuesta.

l) Licencia Municipal de Actividad.

***Artículo 9.–*** Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la solicitud de subvención no reuniese los requisitos exigidos en el artículo anterior y los exigidos, en su caso, por la legislación específica aplicable, se requerirá a la persona interesada para que en el plazo de diez

riak aurkezteko eskatuko zaio, hala egingo ez balu, bere eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela jakinaraziz, deialdiaren gaineko erabakia hartzeko ardura duen organoak dagokion ebazpena eman ondoren.

*10. artikulua.–* Urteroko deialdi-aginduak.

Urtean behin, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren agindu bidez, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean hemen arautakoko diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoen zenbatekoa eta diru-laguntzak emateko lehentasunezko irizpideei dagokien haztapena zehaztearekin batera. Bestalde, urteroko deialdia egiteko aginduan diru-laguntza emateko irizpide berriak finkatu ahal izango dira, eta irizpideok, dekretu honetako 7. artikuluan zehaztutakoei gehituko zaizkie.

*11. artikulua.–* Diru-laguntzak kudeatzeko ardura duen organoa.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzari dagokio dekretu honetan aurreikusitako diru-laguntzak kudeatzeko lanak burutzea.

*12. artikulua.–* Balorazio-epaimahaia.

Eskaerak berariaz sortutako epaimahai batek baloratuko ditu. Epaimahaia ondokoek osatuko dute: Ingurumen Kalitateko zuzendariak, eta Ingurumen Kalitateko zuzendari horrek izendatutako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari atxikitako bi funtzionariok. Epaimahai honek dagokion ebazpen-proposamena egingo du, diru-laguntza emateko irizpideekin eta aurrekontuaren mugekin bat etorriz, diru-laguntzarik eskuratu dezaketen egitasmoak zeintzuk diren erabaki eta diru-laguntza horien zenbatekoa finkatzeko. Proposamena Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuari aurkeztuko zaio eta honek, dagokion aginduaren bidez, diru-laguntzen onuradun eta zenbatekoen gaineko behin betiko erabakia hartuko du.

*13. artikulua.* Ebazpena.

1.– Diru-laguntzen banaketari buruzko esanbidezko ebazpena hartzeko eta onuradunei jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea finkatzen duen urteroko agindua indarrean sartzen den egunean hasita.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1. artikuluan finkatutakoarekin bat etorriaz, epe hori igarotakoan interesdunari inolako ebazpenik jakinaraziko ez balitzaio, haren eskaera onartu ez dela ulertu ahal izango da.

días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución dictada al efecto por el órgano competente para resolver la convocatoria.

*Artículo 10.–* Órdenes anuales de convocatoria.

Anualmente, y mediante Orden del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, se establecerá para cada ejercicio presupuestario el plazo de presentación de solicitudes para acogerse a las subvenciones objeto de regulación, contemplándose, asimismo, las concretas disponibilidades presupuestarias y la ponderación referida a la aplicación de los criterios de adjudicación prioritarios. Igualmente, la Orden anual de convocatoria podrá incorporar nuevos criterios de adjudicación que se sumarán a los establecidos en el artículo 7 de este Decreto.

*Artículo 11.–* Órgano encargado de la gestión de las subvenciones.

Corresponderá a la Dirección de Calidad Ambiental del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en el presente Decreto.

*Artículo 12.–* Tribunal de valoración.

Las solicitudes se valorarán por un Tribunal creado al efecto que estará compuesto por el Director de Calidad Ambiental y dos personas funcionarias adscritas al Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente y designadas por el citado Director de Calidad Ambiental. El mencionado Tribunal elaborará la oportuna propuesta de resolución que, ajustándose a los criterios de adjudicación y a los límites presupuestarios, determine los proyectos susceptibles de obtener subvención, así como la cuantía de la misma. Dicha propuesta se elevará al Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente quien, a través de la subsiguiente Orden, determinará, de forma definitiva, las personas beneficiarias y las cuantías de las subvenciones a conceder.

*Artículo 13.–* Resolución.

1.– La resolución expresa de concesión de subvenciones será dictada y notificada a las personas beneficiarias en el plazo máximo de seis meses a contar desde la entrada en vigor de la Orden anual en la que se establezca el plazo para la presentación de solicitudes de subvención.

2.– De conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, si una vez transcurrido dicho plazo no hubiera sido notificada al interesado resolución alguna, la solicitud correspondiente podrá entenderse desestimada.

3.– Diru-laguntzak emateko prozedurari buruzko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da artikulu honetako 1. paragrafoan finkatutako gehienezko epean.

*14. artikulua.*– Baldintza-plegua.

Diru-laguntza emateko agindua jakinarazi eta hiru hilabeteko epean gehienez ere, Ingurumen Kalitateko zuzendariak, diruz lagundutako proiektu bakoitzaren ezaugarri bereziak aintzakotzat hartuz, onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete beharreko baldintza eta bermeen orrian jasotakoaren berri emango die hauei.

*15. artikulua.*– Diru-laguntzaren ordainketa.

1.– Diru-laguntzaren onuradunek diruz lagundutako inbertsioa frogatu egin beharko dute dagozkion agiriak aurkeztuz, inbertsioa burutu eta sei hilabeteko epean, baldintzen eta bermeen pleguan finkatzen den moduan.

2.– Era berean, Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzari atxikitako teknikariek ikuskatuko dute laguntza-onuradunek benetan betetzen dituztela aurreikusitako baldintzak, bai diru-laguntzen ebazpenean finkatutakoak eta bai baldintzen eta bermeen pleguan jasotakoak.

3.– Artikulu honetan zehaztutako baldintzak bete ondoren, diru-laguntza ordaintzeko agindua emango da, Ingurumen Kalitateko zuzendariak hartara emandako ebazpenaren bitartez.

*16. artikulua.*– Onuradunen beste zenbait betebehar.

1.– Dekretu honetan arautiutako diru-laguntzen onuradunek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte nahitaez:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Honela, 14. artikuluan zehaztutako baldintzen eta bermeen plegua jaso eta 15 eguneko epean onuradunak diru-laguntza jasotzeari uko egingo ez balio, uko hori berariaz eta idatziz adieraziz, berau onartzen duela ulertuko da.

b) Diru-laguntza eman den xede zehatz horretarako erabiltzea, 17.3. artikuluan diru-laguntza emateko aintzakotzat hartzen diren baldintzak aldatzeari buruz zehaztutakoa ezartzekoa den kasuetan izan ezik.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizuna beteaz eskatzen duten informazioa ematea, jasotako diru-laguntzei buruz.

d) Diruz lagundutako inbertsioa burutzea, diru-laguntza jakinarazi eta gehienez 4 urteko epean.

3.– La resolución del procedimiento de concesión de subvenciones será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco en el plazo máximo al que se refiere el apartado uno del presente artículo.

*Artículo 14.*– Pliego de condiciones.

En el plazo máximo de tres meses desde la notificación de la Orden de concesión de subvención, el Director de Calidad Ambiental, atendiendo a las concretas características de cada proyecto subvencionado, procederá a la notificación a las personas beneficiarias de un Pliego de Condiciones y Garantías que habrá de ser cumplimentado por estas últimas para efectuar el pago de la subvención.

*Artículo 15.*– Pago de la subvención.

1.– Las personas beneficiarias de la subvención acreditarán documentalmente en el plazo de seis meses desde la ejecución de la inversión y en la forma en que se concretará en el pliego de condiciones y garantías la inversión subvencionada.

2.– Asimismo por técnicos adscritos a la Dirección de Calidad Ambiental se inspeccionará el cumplimiento, por parte de las personas beneficiarias, de las obligaciones previstas en la resolución de concesión de subvención y en el pliego de condiciones y garantías.

3.– Cumplidos los requisitos a los que se refiere el presente artículo se procederá al libramiento del pago de la subvención mediante Resolución dictada, a tal efecto, por el Director de Calidad Ambiental.

*Artículo 16.*– Otras obligaciones de las personas beneficiarias.

1.– Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente Decreto deberán cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días desde la fecha de recepción del pliego de condiciones y garantías al que se refiere el artículo 14 la persona beneficiaria no renunciara expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido otorgada, salvo que resulte de aplicación lo dispuesto en el artículo 17.3 sobre alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas la información que les sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas.

d) Ejecutar la inversión subvencionada en el plazo máximo de 4 años desde la notificación de la concesión de la subvención.

e) Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzari onuradunak eskuratu dituen gainerako diru-laguntza eta bestelako laguntzen berri ematea, laguntza eman duen erakundea eta laguntzaren zenbatekoa zehaztuz, horren berri izan eta hamar laneguneko epean.

2.– Aurreko paragrafoan zehaztutakoaren kaltetan izan gabe, eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoak hogeita hamar mila (30.000) euroak gainditzen dituen kasuetan, diru-laguntzen onuradunei diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak urtebetez gordetzen dituztela froga dezatela eskatu ahal izango zaie. Horretarako banku-abala aurkeztu beharko dute, edo horren ordezko bestelako bermeren bat, ezarritako baldintzak bete ezean, berme horiek onuradunak jasotako zenbateko osoa Eusko Jaurlaritzari guztiz itzuliko diotela ziurtatzeko balio baldin badute. Eskakizun hori gauzatuz gero, baldintzen eta bermeen pleguko 14. artikuluan finkatutakoari erantsiko litzaioke.

*17. artikulua.*– Laguntzak metatzea.

1.– Dekretu honetan arautzen diru-laguntzak ezin izango dira beste laguntza batzuekin edo Europako erkideko erakundeek emandako bestelako ekarpenekin metatu, metatze horren ondorioz aurreikusitakoa baino laguntza handiagoa sortzen bada.

2.– Beste erakunde batzuek bestelako xedeetarako emandako laguntzen kasuan, laguntza horiek diruz lagundu daitezkeen koste berberen gaineko eragina badute, laguntza onuragarrienak finkatzen duen gehienezko muga ezarriko da.

3.– Diru-laguntza emateko aintzakotzat hartutako baldintzen gainean aldaketarik izanez gero, eta, beste edozein erakunde publikok aldi berean laguntzarik emango balu, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzea gerta liteke. Halakoetan, ebazpen berria emango litzateke, emandako diru-laguntzen zenbatekoa egokituz.

*18. artikulua.*– Finkatutakoa ez betetzea.

Diru-laguntza ematea eragin zuten baldintzetako bat betetzen ez dela egiaztatuko balitz, ikuskaritza-lanak ahalbidetzeari uko egingo balitzaio, edo onuradunek dagozkien betebeharrak beteko ez balituzte, jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko liokete Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, dagozkion legezko interesekin batera, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duena) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin bat etorrita eta han ezarritako baldintzetan.

e) Comunicar a la Dirección de Calidad Ambiental del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente la obtención, órgano concedente y cuantía de cualesquiera otras subvenciones y ayudas otorgadas, procedentes de cualquier Administración, en el plazo de los diez días hábiles siguientes a tener conocimiento de dicha circunstancia.

2.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, y en los supuestos en los que el importe de la subvención concedida ascienda a una cantidad superior a treinta mil (30.000) euros, podrá exigirse, igualmente, a las personas beneficiarias de las subvenciones, que garanticen durante un año el cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención mediante aval bancario u otras formas de garantía sustitutorias de la anterior, siempre y cuando permitan el reintegro al Gobierno Vasco del importe total de las cantidades recibidas por la persona beneficiaria, en los supuestos de incumplimiento de las citadas condiciones. Dicha exigencia, de hacerse efectiva, se incorporará al contenido del pliego de condiciones y garantías previsto en el artículo 14.

*Artículo 17.*– Acumulación de ayudas.

1.– La subvenciones reguladas por el presente Decreto no podrán acumularse con otras ayudas ni con otras aportaciones comunitarias si tal acumulación conduce a una intensidad de ayuda superior a la prevista.

2.– En caso de ayudas concedidas por otras entidades con distinta finalidad pero relativas a los mismos costes subvencionables será de aplicación el límite máximo de ayuda más favorable.

3.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objetivo de ésta, y, en su caso, la obtención concurrente de otras ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos se dictará la oportuna resolución, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

*Artículo 18.*– Incumplimientos.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención, la negativa a facilitar la labor de inspección y el no cumplimiento de las obligaciones atribuidas a los beneficiarios, dará lugar, de conformidad, y en los términos establecidos en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991 de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas, más los intereses legales que procedan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe gelditzen da otsailaren 4ko 15/1992 dekretua, enpresei ingurumen alorreko diru-laguntzak emateko oinarrizko arauak finkatzen dituena, eta dekretu honetan finkatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko gainerako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehena.***– Dekretu honetan aurreikusi ez den guztirako ondoko arauak erabiliko dira: ingurumena babesteko estatuko laguntzei buruzko Europako erkidegoko jarraibideak (2001/C37/03), bai eta azaroaren 11ko 1/1997 legegintzako dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra Arautzeko Printzipioei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duena.

***Bigarrena.***– Europako erkidegoko araudi berezien bidez arautukako sektoreetako enpresei diru-laguntzak emanez gero, xedapen horietako irizpide eta edukiak bete beharko dira, kasu guztietan.

***Hirugarrena.***– Ahalmena eman zaio Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuari Dekretu hau zuzen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

***Laugarrena.***– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko apirilaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 15/1992, de 4 de febrero, por el que se establecen las normas básicas para la concesión de subvenciones a empresas en materia de medio ambiente y cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en este Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– En todo lo no previsto en el presente Decreto resultará de aplicación lo dispuesto en las Directrices comunitarias sobre ayudas estatales a favor del medio ambiente (2001/C37/03), y lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

***Segunda.***– El otorgamiento de subvenciones a empresas integradas en sectores regulados por normativas comunitarias específicas respetará, en cualquier caso, los criterios y contenidos de las citadas disposiciones.

***Tercera.***– Se faculta al Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo del presente Decreto.

***Cuarta.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## Zk-2758

92/2002 DEKRETUA, apirilaren 23koa, «Guevarara (Araba) sartzeko A-4013 errepidean plataformaren ibilbidea hobetzeko eta zabaltzeko proiektuaren» eraginpean dauden ondasun eta eskubideak Arabako Aldundiak, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako, lehenbailehen okupatu behar dituela adierazten duena.

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2001eko uztailaren 17an hartutako Erabakiaren bitartez, «Guevarara (Araba) sartzeko A-4013 errepidean plataformaren ibilbidea hobetzeko eta zabaltzeko

## N°-2758

DECRETO 92/2002, de 23 de abril, por el que se declara de urgencia la ocupación por la Diputación Foral de Álava, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos afectados por el «Proyecto de construcción de mejora de trazado y ampliación de plataforma en la carretera A-4013 de acceso a Guevara (Alava)».

Por Acuerdo del Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Alava, de fecha 17 de julio de 2001, se sometieron inicialmente a información pública, a efectos de expropiación forzosa, los bienes y derechos afec-